

Elkarrizketa



Jose Ramon Garai

• EUSKADIKO PILOTA
FEDERAZIOKO PRESIDENTEA •

«Ez da oso
koherentea
selekzio propioa
eskatzen aritzea
eta Espainiakoan
egotea» • 42

politika

■ Eusko Jaurlaritzak
kereila kriminala
aurkeztuko du Villarren
adierazpenengatik • 6

gizartea

■ Irungo udal alardea
orain arteko ordutegian
egin dadin eskatu du
Legebiltzarreko
batzordeak • 18

kirola


■ Europakoa

Espainiak, joko kaskarra
erakutsita, galdu egin du
Norvegiaren aurka (1-0)

Esloveniak berdinketa
lortu du Jugoslaviaren
aurka (3-3) • 31-38

Bai Euskarari Ziurtagiria

GARI GARAIALDE



Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendiguren eta Donostiako alkate Odon Elorza, MCCko ordezkari Xabier Erdoziari Bai Euskarari Ziurtagiria ematen. Atzean Kontseiluko zuzendaritzako eta Jarraipen Batzordeko kideak ageri dira.

425 gizarte eragilek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria

Plan Estrategikoan parte hartu zutenen %60k eman diote baiezkua konpromisoari

■ BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA jaso zuten atzo 425 gizarte eragilek, Donostiako Miramon Teknologia Elkartegian egin zen ekitaldian. Bai Euskarari Akordioaren baitako Plan Estrategikoan proposatu zaizkien euskararen aldeko gutxieneko konpromisoei baiezkua eman dietela dio Ziurtagiriak. Kon-

Xabier Mendiguren:
«Bai Euskarari Akordioak era
askotako emaitzak emango
ditu aurrerantzean ere; orain
lehen uzta biltzen ari gara»

tseiluko ordezkariak gustura mintzo ziren. Izan ere, Plan Estrategikoan parte hartu zutenen %60k eman diote baiezkua konpromisoari. Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendigurenek eskerrak eman zizkien Ziurtagiria jaso dutenei. «Gizarte eragileak berriro ere aitzindiarri zarete», esan zien.

• 15-17

UNI
BERTSITATEA
Disko gogorra
euskara
erdiko orrialdeetan



OSKAR MONTERO

Nafarroako Parlamentuak onartu du hizkuntza politika berriz aztertzeke PSNren mozioa

■ Sozialistekin batera, UPNk eta CDNk bozkatu dute mozioaren alde • 19